

# PROBA ESPEZIFIKOA

2021eko PROBA

**ARTEAREN  
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**ARTEAREN HISTORIA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS*

*MAYO 2021*

**HISTORIA DEL ARTE**

**PROBAK BI AUKERA DITU: A ETA B. HAIETAKO BAT AUKERATU BEHAR DA.**

**A AUKERA**

**AZTERTU ETA IRUZKINDU IRUDI HAU: (5 puntu)**



**GARATU GAI HAU (5 puntu).**

- **ESPRESIONISMO ABSTRAKTUA**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**ARTEAREN HISTORIA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS*

*MAYO 2021*

**HISTORIA DEL ARTE**

## **B AUKERA**

**AZTERTU ETA IRUZKINDU IRUDI HAU: (5 puntu)**



**GARATU GAI HAU (5 puntu).**

- **POP ARTEA.**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**ARTEAREN OINARRIAK**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2021


**FUNDAMENTOS DEL ARTE**

**ARTEAREN OINARRIAK EBAZPENA  
(2021)**

**PROBAK BI AUKERA DITU: A ETA B. HAIETAKO BAT AUKERATU BEHAR DA.**

**A AUKERA**

**AZTERTU ETA IRUZKINDU IRUDI HAU: (5 puntu)**



Atena Nikeren tenplua.

Kalikrates.

Aktiboa K.a. V. mendean.

Penteliko mendiko marmola.

Estilo greko klasikoa.

Atena Nikeren tenplua ordena jonikoko arkitekturaren adibiderik onenetakoa da. Tenplu anfiptostiloa eta tetrastiloa da, hiru mailaz goratutako plataforma baten gainean eraikia.



Sarreran, bi horma-tarteren artean kokatutako bi zutabe daude.

Fatxadetako koloma jonikoek osagai hauek dituzte:

- Oinarri bat, bi moldurarekin.
- Fuste monolitiko ildaskatu bat.
- Bolutaz apaindutako kapitela bat.

[...]

Atena Nikeren tenplua propileoaren aldean dago, hau da, Akropolia osatzen duten eraikin sakratuen multzorako sarbidea ematen duen ate monumentalean.

[...]

Atena Nikeren tenplua, funtsean, eskerrak emateko aldare bat da, gerrako estrategiaren eta jakinduriaren jainkosa grekoari eskainia. Atena Nike Atenas hiriko zaindaria zen. Atenasen gerra medikoetako garaipena ospatzeko eraiki zen. [...]

### **GARATU GAI HAU (5 puntu).**

- **ESPRESIONISMO ABSTRAKTUA**

Expresionismo abstraktua 1947an hasi zen, Jackson Pollock-ek bere lehen drip-ping-a egin zuenean: pintura dinamikoa eta keinuzkoa da, hizkuntza figuratibotik erabat aldentzen; automatismo surrealistaren eta abstrakzioaren bat-egitearen emaitza da.

Hala ere, expresionismo abstraktua, termino gisa, ez da oso zehatza, zenbait azpijoera baitaude —keinu-korrontea, zeinu-korronte edo korronte kaligrafikoa eta korronte espazialista—.

Gainera, kideetako batzuen lanak ez dira oso abstraktuak, Willem de Kooning-ek margotutako emakumezko pertsonaia groteskoek frogatzen duten bezala.

Zeinu-korronte edo korronte kaligrafikoan, Franz Kline nabarmentzen da. Haren lanak, pintzelkada handiak eta murriztapen kromatiko nabarmena —zuria eta beltza— ezaugarri dituela, ekialdeko kaligrafia gogorarazten du. Mark Rothko, joera espazialistarekin identifikatua, alborakuntza kromatikoaren emozio-aukerak landu zituen. [...]





Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**ARTEAREN OINARRIAK**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2021

**FUNDAMENTOS DEL ARTE**

## B AUKERA

**AZTERTU ETA IRUZKINDU IRUDI HAU: (5 puntu)**



Segoviako akueduktu erromatarra.

Egile ezezaguna.

Urteak: 90-105

Granitoa.

Guadarrama mendilerroan du abiapuntua akueduktuak, hiritik 16 km ingurura; han jasotzen du Frío ibaiko ura. Handik, 30 bat cm-ko diametroko kanal bat abiatzen da, maldari jarraituz eta tarte batzuk lur azpian eginez, urak arrastatzen zuen zikinkeria kentzen zen dorreraino. [...]

Hortik aurrera hasten da akueduktuaren ageriko zatia, arkitektonikoa, bi zati handitan banatua. Lehenengo zatian, puntu-erdiko 78 arku daude, eta bigarreanean, 44 arku bikoitz bata bestearen gainean jarriak. [...]

Akueduktu hau hiriaren goialdea urez hornitzeko eraiki zen, han garrantzi estrategikoko barruti militar bat baitzegoen. [...]



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**ARTEAREN OINARRIAK**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2021

**FUNDAMENTOS DEL ARTE**

---

## **GARATU GAI HAU (5 puntu).**

### ▪ **POP ARTEA.**

Lawrence Alloway kritikari ingelesak sortu zuen *Popular art* izena, eta 1950eko hamarkadaren erdialdetik 1970eko hamarkadaren hasiera arte ia aldi berean Londresen eta New Yorken garatu zen mugimendu bat izendatzeko erabili zuen.

Pop artearen lanak figuratiboak dira, kontsumoaren eta herri-kulturaren iruditerian oinarrituak: iragarkiak, aldizkariak, egunkariak, komikiak, pertsonaia famatuak edo kontsumoko ohiko objektuak. Erraz uler daitekeen artea da, espresionismo abstraktuaren gehiegizko intelektualizazioari kontrajarria. [...]

Pop artearen ordezkari gorenaren artean, guztien gainera, Andy Warhol ageri da, Estatu Batuetako pop artearen ordezkari nagusia. Warholekin batera, Roy Lichtenstein, Tom Wesselmann eta Claes Oldenburg eskultorea ere aipatu behar dira.

Ingalaterran eta Espainian ere badira ordezkari garrantzitsuak. [...]